





PR-Gi 206 MURUGAIN, DRAGOIAREN BIDETIK














PR-Gi 206 MURUGAIN, DRAGOIAREN BIDETIK

Ibilbide zirkular hau Murugainera doa, Arrasate, Aretxabaleta eta Aramaio herrien artean kokatua, kondairak dioenez dragoiak buztanaz egindako mandabidetik. Gailurrean daude Burdin Aroko herrixka baten aztarnak eta gerra zibileko lubakiak. Gozatu daiteke ere inguruko mendien eta herrien panoramikaz.



MIDE

Ibilbidearen maila tekniko eta fisikoa neurtzeko metodoa. Zailtasun maila da 1etik 5era, txikienetik handienera.	Denbora		4h 15'
	Igoera desnibela		734 m
	Jaitsiera desnibela		734 m
	Distantzia horizontala		11,5 km
	Ibilbide mota		Zirkularra
	Ingurune naturalaren gogortasuna		1
	Orientazioa ibilbidean		2
	Zailtasuna desplazamenduan		2
	Egin beharreko esfortzua		3


MAPA



IBILBIDEAREN AZALPENAK

- **(A) Lauaxeta.** Hasiera du Lauaxetako panel informatiboaren aurrean. Metro batzuk aurrerago ezkerrera egiten du eta pistan gora Olandiogain baserrira doa. Aurrera segituta langa bat pasatzen du eta ondoren zuzen segitzen du aurrera 2,5 km inguru pista nagusia utzi barik, Napparrenako iturriraino.
- **(B) Napparrena.** Bidea iturriaren eskuin aldean dagoen langa pasatu eta sigi-saga aldapan gora doa gailurrera iritsi arte. Napparrenako iturrian eskumara doan laburbideak pistatik Bastergainazpikoa baserrirantz eramaten du ibilbidea laburtuz
- **(C) Murugain.** Bideak sigi-saga egiten du beherantz Aramaioko lurretan zehar, GR-121 ibilbidearen marra zuri-gorriekin elkartu arte, eta honekin batera doa Suña pasatu eta Mendiguren baserrira. Metro batzuk aurrerago, bidegurutzean, bideak segitzen du hormigoizko pistan eskumara eta gora Bastergainazpikoa baserriraino. Hemen langa pasatzen du eta mendi pista nagusia utzi barik behera egiten du. Behera iritsitakoan erreka zeharkatu eta segituan egiten du ezkerrera. Hortik aurrera doa, Ekutio baserri gainera, bidegorrira iritsi arte. Bidegorria amaitzean zuzen egiten du irteera puntura itzuli arte.

18
206



▪ **Murugain (776 m):** gailurrean, Arrasate eta Aramaio herrien artean kokatua, kondairak dioenez, dragoi bat bizi zen, Arrasateko herritarrak beldurtzen zituena. Gailurretik inguruko herrien eta mendien ikuspegi ederra dago.

19
206



▪ **Burdin Aroko herrixka:** badirudi herrixkaren okupazioa gertatu zela Burdin Aro Betean, Araba eta Gipuzkoako mugan eta Murugaingo tontorretik gertu. Kokatuta dagoen tokia estrategikoki ona izateaz gain, leku aproposa da Burdin Aroko ekonomia aurrera eramateko. Herrixka harresitua dago, trapezio forman. Kareharrizko harri landu bakoak daude lur eremuko lapiazaren gainean egokituta eta mailakatuta, eustorma moduan.

Aurkitu diren arrastoen artean daude: zeramikak (eskuz egindako 251 zati), hareharrian landutako leungailuak, eskuko errota baten zati bat eta erretako lur edo adobe puskak.

Aztarnategi honek berezitasun propioa dauka, gerra zibilean harresia erabili zelako trinxera moduan; horrek kalteak ekarri zizkion.

20
206



▪ **Espainiako Gerra Zibileko lubakiak:** tontorretik gertu ikusi daitezke gerra zibileko lubakien arrastoak. Horien babesean Dragoen batailoia tiro egiten zien Molaren tropei. Errepublikaren defentsan gudariak Murugainen egon ziren 1936ko azarotik 37ko martxoaren 31ko erasora arte.

Ar



▪ **Artadi kantauriarra (Quercus ilex):** klima mediterraneoari lotutako basoa itxia dugu, gorde dena gainazaleko lurzoruetako eremuetan. Horri lotuta daude klima mediterraneoko espezie tipikoak, adibidez endalaharra (*Smilax aspera*).



- GR 121 Bizkar bidea (Gipuzkoako bira)
- PR-Gi 92 Muga ertzeko bidea
- PR-Gi 170 Eskolore-Latabide
- Arrasateko bira
- Herrigunea-Garagartza-Gesalibar